



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

# ALKIZA Udal-Info 1.0.

2012ko otsailaren 29

## AZKENEAN...!!!

Esan bai esan, urtean hiruzpalau aldiz horrelako orritxo bat zabalduko genuela, baina gero iritsi ez eta gaiak pilatzen joaten dira.

## FESTAK ETA FRONTOIA

Kontu berriagotan sartu aurretik, labur bada ere, atzean geratu zitzaizkigunekin hasiko gara.

### Festak aurreztuz

Honezkerok ahaztuta izango dira (aurtengoetan pentsatzen hasi beharko gara), baina ez genuke jaso gabe utzi behar 2011ko jaiak ospatzeko denen artean egindako esfortzua gastuak ahal zen neurrian murrizteko eta beste Udal partida batzuetan bezala gutxigorabehera %20 gutxiago gastatzeko. Horrela, kontuak itxi eta gero, gutxigorabehera 16.000 € gastatu ziren. Honetan, batez ere, Jai Batzordeari eskerrak eman behar dizkiogu, izan zuen ardura eta egin zuen lana ezinbestekoa izan zelako helburu hori lortzeko, jai oso jator batzuk antolatzeaz gain.

### Frontoia berritu.

Jaiak bukatu eta hurrengo egunean Frontoia berritzeari ekin genion. Zegoena botata, goitik behera frontoi berri bat eraikitzea urtetik urtera atzeratzen ari zen helburua (azken finean betezinezkoa) alde batera utzita, gutxienez ahal zen hobekien konpontzera ekin genion. Hortarako, Kirol Batzordearekin elkarlanean eginbeharrekoa zehaztu genuen eta egin zitezkeen gauza guztien artean lehentasunak finkatu genituen orden honetan: lehendabizi eurietatik babestea, teilatuko kanaloiak-eta konpontzea eta kanpotik eta barrutik margotzea; ondoren atzekaldeko zapaia berritzea eta armailak txukunzea eta eserlukuak jartzea; azkenik ia ezinezkoa ikusten genuen lurra berritzea eta beste osagarri batzuk (inguruko beste konponketak, agian aldagelak-komunak, ...).

Gipuzkoako Foru Aldundian egitasmoa aurkeztu eta 25.000€ dirulaguntza lortu genuen, konponketaekin hasteko ematen ziguna Udalak beste horrenbeste-edo jartzea lortzen bazuen.

Lurra eta auzolanean erabilitako materiala kontatu gabe, 60.000 € baino zerbait gehiago izan zen lehendabizi egin zen gastua. Bigarren fasean, lurra konpontzea eta auzolanean egin zen armailen konponketa eta eserlekuak eta beste kontu eta konponketa txikiago batzuk, beste 25.000 € inguru suposatu zuten. Kopuru horri aurre egiten laguntzeko eta, agian, hirugarren faseko beste batzuekin animatzeko, berriki konfirmatu diguten EREINeko (Landa Garapen) beste dirulaguntza partzial batek emango digun aukerak aztertu behar ditugu.

Ezin atal hau bukatu auzolanean denbora eta esfortzua dohain jarri zuten igeltsero, harotz eta laguntzaile-peoi guztiei eskerrak eman gabe. Herrian **auzolana** berreskuratzeak ematen duen pozaz eta itxaropenaz haratago, esan beharra dago guztiz ezinbestekoa izan zela frontoia egokitu ahal izateko, Kirol Batzordearen ardura eta lanarekin batera.

## ESKOLA ORDUAN KOTXEAK

Udalak bat egiten du kurtso hasierako oharrean Guraso Elkarteak egiten zuen eskaerarekin, hau da, "... ahal den neurrian eskola aurrean kotxerik ez sartzea umeen sartu-irteeretan".

## AZAROKO UHOLDEEN ONDORIOAK

Azaroaren 5-6 astebukaeran inguruan botatako euriak gurean ere kalteak sortu zituen. Beste txikiago batzuen artean (Ostatun, herribideak, ...), Agina eta Saletxe baserrietara doan bidean ikaragarritzko luizi bat eman zen bidearen azpikaldea zati haundi batez hustuz. Arriskua zegoela ikusirik bidea lehen bait lehen konpondu behar zen. Hortarako Tolomendiko arduradunekin eta gure apararejadore eta Foru Aldundiko teknikariek kontsultatu ondoren konpoketa nolakoa izan behar zen erabaki genuen. Aurrekontua eskatu, egin behar zen harri-lubetarekin (escollera) 25.000€, eta astebetea igaro baino lehen egiteko agindua eman genuen.

Azkartasun hau posiblea izan zen auzokoen eta Udalaren arteko akordio bati esker. Nahiz eta ordurako (Azaroaren erdialdea) Udalak ez zeukan nahiko dirurik, obra egiteko ezin genuen dirulaguntzei begira geratu. Beraz, kaltetuekin bildu eta erdibana ordaintzea adostu genuen, gero dirulaguntzetatik lortzen denerakin, hala bada, itzultzeko edo bestela epe batera.

## GABONETAKO SASKIAK

Herriko jubilatuei eguberrietako saskiak ezingo zitzaizela banatu esaten zuen Abenduaren 21ko bandoak aipatzen zituen "onerako eta txarrerako" ezusteko gastuak, hain zuzen, goian azaldutako frontoiarenak eta uholdeen ondorioak ekarritakoak ziren.

## OSTATU

Ezer baino lehen Mari-ri gure esker ona helarazi nahi diogu azken urteetan egindako lanagatik. Oraingoz Alkizako Ostatura utzi eta beste jardunbide batzuk nahi omen zituen jorratu eta errespeto osoz eskerrak eman eta onena desiatzea besterik ez zaigu geratzen.

Epea bukatuta, hala zegokion eta Ostaturako kudeaketa konkurtsora atera zen baino ez zen inor aurkeztu, ez herriko eta ez ingurukoa, beraz lehiaketa *desierto* geratu zen. Geroztik ere, daudenak ez ezik, ez da beste inor agertu interesaturik (bestelako zurrumurrua zabaldu arren). Gainera, Jexux-ek esana zuen urtea bukatzen zenean Elizegi itxi egin behar zuela. Hortaz, Alkiza batere tabernarik gabe geratzeko arriskua zegoen. Beraz, Hernaniko familia batek interesa zuela esanez gerturatu zitzaigunean udalbatzako ordezkariak batek beraiekin hitzegin zuen eta aukera aztertu zuen. Beraien esperientzia eta tabernako ardura hartuz gero azaltzen zituzten asmoak eta proiektuak kontuan harturik eta, **batez ere, Ostatu ez ixtea lehenetsita**, erabaki genuen urtebeterako proban hartzea. Dena ondo badoa eta alde biak konforme bagaude urtea bukatzerakoan kontratua urtez urte luzatu daiteke.

## ALKIZAN "LUR PUBLIKOA OSATZEN" PROIEKTUA

2010ean mendi eta basoei buruz horrenbeste bilera egin ondoren, Udalak publikoki lurra erosteko dirulaguntzaren bat lortzeko konpromesua hartu zuen eta horretarako egitasmo zabal eta sakon bat aurkeztu zuen (urte bereko udara partean lurjabeen gogoak aztertzen ibili eta gero). Azkenean 70.000 €ko dirulaguntza, zoritxarrez oso txikia, lortu zen. Bada, horrekin hainbat lurjabe partikular eta Parrokiako Juntako ordezkariekin bildu izan gara *Ernio-Gazume Babes Bereziko Gunean* (ditxosoko ZEC hura) Alkizako herriarentzat izango diren lur sailak erosteko. Dagoeneko akordio batzuk lotu dira eta beste batzuk oraindik zehazteko daude.